



II. TEORIAK ETA AZTERKETAK >>>

5

ARTO GUTXITAN, KALABAZA JAKI (GIZARTE-KOMUNIKAZIOA, EUSKARAZ ERAIKITZEN)

Jose Inazio Basterretxea Polo

EHU, kazetaritza

Helbide elektronikoa: joseinazio.basterretxea@ehu.es

Ororen beharra da komunikazioa, beste inorekin harremanetan jartzea denean helburu. Harreman-ildo horretarako, kodeak eta sistemak behar izaten ditugu denok.

Animali izan nahiz landare, gizaki zein makina, kodeak eta sistemak bermatzen dute komunikazio-harremana eta haren arrakasta.

Gizaki den heinean, kode eta sistema horietako batzuen beharra du pertsonak; bizitzeko legez, baita gizaki izateko ere. Giza harremana ahalbidetzen duten kode eta komunikazio-sistema horietako batzuei hizkuntza deitu diegu: errusiera, kinyarwanda, euskara...

Norbanakoaren antzera, gizarteak berak ere bere komunikazio-sistema propioak eraikitzen eta erabiltzen ditu, aurreratuak batzuk eta klasikoak beste batzuk. Gizarte-esparruko testuinguru irekian, ezin saihestuzko lanabesak dira hedabideak eta komunikabideak: irratiak, telebistak, egunkariak...

Ororen beharrezana da komunikazioa, eta orori behar dio erantzun. Eginkizun horretan uztartzen dira euskara —hizkuntza legez— eta hedabideak —hizkuntzaren eroale gisa.

1. HIZKUNTZA-HEDABIDE BINOMIOA

Esparru publikoan nahiz pribatuan, gauzak azaldu behar dituenen, eskuan hartu ohi du gizakiak mintzoa. Ezinbesteko lanabesa du pertsonak hitza. Berba hori ez du komunikazio-tresna bakarra, jakina.

Bai, ordea, ohikoena.

Mundua adierazteko, pentsatua kontatzeko, ondokoari dolumina azaltzeko, edo etorkizunari buruzko juzguak kaleratzeko, hitz egiten du gizakiak; edo pintatu, edo musika konposatu, edo laztandu, edo borrokatu, edo begiratu, edo... Baina, batez ere, hitz egiten du. Berba.

Hedabideek ere, berdin. Batez ere, berba egiten dute publikoari begira diharduten gizarte-komunikazioaren tresna horiek.

Giza talde nahiz gizarte baten barruko harreman etengabearen baitan, ezin banatuzko binomioa osatzen dute hedabideek eta hizkuntzek, kazeta batek eta kazetariaren jardun idatzi jakinak, telebista batek eta haren emanaldi ezagunak, zinemako filmak eta haren ikusleak.

Lurrak eta Eguzkiak bezalako binomioa osatzen dute horiek guztiek, ez baitu Lurrak bizitarik mamituko Eguzkiaren berotasunik gabe. Hizkuntzarik gabe, zail du hedabideak ezer kontatzea, aipatzea edo kritikatztea; bestelako kode komunikatzaileak egon badaude ere.

Euskararik gabe, zer gizarte-komunikazio duke euskal komunitateak?

Talaia soziolinguistikotik nahiz kulturaletik begiratuta, kate bereko begiak dira hizkuntza eta hedabideak. Elkarren eraginpe zuzenean daude.

2. ARTO GUTXITAN, SINERGIA- ETA BEREGAINITASUN-ARDATZAK INDARTU

Euskaraz bizi den eta hala bizi nahi duen hizkuntza-komunitateari erantzun behar dion gizarte-komunikazioaren sektore osasuntsua eta normalizatua behar dugu guk, euskal hiztunok. Eta, horretarako, modu orekatuaren bat aurkitu beharko da euskaraz diharduten hedabide-mota guztiak uztartzeko eta egungo produktuei etekin ekonomiko, sozial eta kultural handiago ateratzeko.

Ahul xamarra da euskararen artasoroa, kontu pixka bat eskatzen du horren ustiaketak. Ongarri gisa, sinergien kudeaketa eta eragileen beregaintasun autozentratua izan litezke arrakastatsuenak.

2.1 Sinergiak kudeatzearen beharra

Euskarazko hedabideen sektorean, era askotako komunikabideak daude: handiak, txikiak, nazionalak, lokalak, publikoak, pribatuak, idatziak, ikus-entzunezkoak, digitalak...

Egun, horien guztien arteko harremanak ahulak dira. Ahulak dira ondoan eta hizkuntza berean aritzeak berez sortzen dituen sinergiak

Ororen beharrizana da komunikazioa, eta orori behar dio erantzun. Eginkizun horretan uztartzen dira euskara –hizkuntza legez– eta hedabideak –hizkuntzaren eroale gisa–.

*Ahul xamarra da
euskararen artasoroa,
kontu pixka bat eskatzen
du horren ustiaketak.
Ongarri gisa, sinergien
kudeaketa eta eragileen
beregaintasun
autozentratua izan
litezke arrakastatsuenak.*

detektatzeko radar egokirik ez dugulako sortzen asmatu.

Euskararen etorkizunaz arduraturik dagoen gizarte batek euskarazko hedabideen sare beregain bat eraiki beharko zukeen. Sare horretan, bat egin beharko zuketen hedabideek eurek, kontsumitzaileek eta administrazioek.

Zeregin garrantzitsua da hori, estrategikoa sektorearentzat, bai eta euskararen komunitatearentzat ere.

Euskararen aldeko plan integral baten baitan garatu beharko litzateke harreman hori.

2.2 Beregaintasun ekonomikoa eta profesionala

Bere irizpideen eta beharren arabera funtzionatzen dakiena da beregaina. Beregaintasun propioa diseinatu behar dute euskarazko hedabideek, erdal/elebidun diren hedabideen imanetik aske ibiltzeko.

Horretarako, bi arlo landu beharko lituzkete, gutxienez: beregaintasun ekonomiko-enpresariala eta profesionala.

2.2.1 Beregaintasun ekonomikoa, abiapuntua

Ez da berez ona euskarazko hedabideak erdarazko hedabide-talde indartsuen menpeko izatea, haien *beste ekoizpen bat* gehiago izatea. Horrela gertatuz gero, ahula beti indarge. Horixe erakutsi digu historiak.

Erdararen errentagarritasunaren menpe jartzen denean euskararen errentagarritasuna, enpresaren ikurra erdarazkoa denean eta euskarazkoa beste zerbait, baina ez ikur eta ardatz, euskarazko produkzioa arriskuan da. Ez derrigor. Baina, arriskua hor dago. Behin baino gehiagotan mamitu eta gauzatu da hori.

Arestiko baieztapena oinarritu lezaketen adibideak badira, bat baino gehiago. Hona horietako bi:

Bat. Beste arrazoi batzuen artean, produktuaren errentagarritasun ekonomikoa eta baliagarritasun sozial nahiz kulturala maila berekoak ez izateak ekarri du *Zabalik* astekariak hondo jotzea. Gordin esanda, *Zabaliken* kasuan, ez zaio nahikoa interesgarri iruditu enpresa sortzaileari aurrera segitzea produktuarekin, bere helburu ekonomiko, kultural eta politikoak beste nonbait zeudelako. Beste ekoizpen batzuetan, beste kultura-erkidegotan, beste jarduera enpresarialetan. *Diario* eta *Correoren* eskuetan, zerbait anekdotiko izan da *Zabalik*. Berezia eta bitxia. Salbuespena. Eranskina. *Zabalik* ez da izan enpresaren hil ala biziko hautua, eta ez zaio eutsi, enpresak berak bazituelako beste produkzio-lerro batzuk, interesgarriagoak ekonomikoki eta sozialki. Euskararen erkidegoarentzat tamalez, euskara ez zegoen enpresa horren lehentasunen artean.

Eta bi. ETB1en eta ETB2ren artean banatu diren komunikazio-rolak analizatzeak ere argi lezake zenbaterainokoa izan daitekeen euskarazko

hedabidea erdarazkoaren menpe egotearen hutsa. EiT Brentzat, lehen kateak zerbitzu bat eman behar du, eta bigarrenak beste bat. Irizpideak irizpide, ez dute zerbitzu bera ematen batak eta besteak. Ekoizpena analizatu besterik ez, edo entzule potentzialen zerrendak ikusi besterik ez, jakiteko ezen sano desberdinak direla ETB1 eta ETB2. Ez bakarrik hizkuntza-erkidegoari begiratuta. Desberdinak dira baita edukiei begiratuta ere. Kate bakoitzak bere garrantzia du enpresaren egituraren baitan, baina berdin-berdina ez da garrantzia hori. ETB2n ikusten dira produktu batzuk, ETB1en beste batzuk. Euskarazkoari gagozkiolarik, euskaldun bat baino gehiago ezagutzen dugu denok, den-denok, umeentzako programen gainosiarekin kexu dena, edo kirolekin. Ildo horietan bietan, gantza ugari lotu zaizkio euskarazko telebista publikoari gerrian. Beste arlo batzuetan, aldiz, anorexiko xamar ageri da programazioa. Esate baterako, helduentzako entretenimenduzko programazio irekian, edo berehalako informazioaren emanaldietan.

Bi adibide baino ez dira arestiko horiek, bata enpresa pribatutik ekarria, bestea publikotik.

Oro har, kompetentzia linguistikoa ona izan badaiteke ere, etxe berean kudeatu beharrak ez du soinu ona egiten, normalean. Euskarari ez dio orain arte mesede handirik ekarri erdararen menpe bizitzeak. *Desafinatu* egiten baitu euskarak erdararen etxean, zozoak uso artean legez.

Aurrera egin, arrakasta erdietsi eta goragoko maila komunikatiboetara heltzeko, bere lantegi erabat propioa behar du euskarak; ez beste inoren tailer-atal atxikia.

2.2.2 Beregintasan enpresariala, onura

Seguruagoa da euskarazko hedabidearentzat bere enpresaren jabe izatea, produkzio-lerro independenteak abiarazteko.

Bide horretan asmatzeko, euskarari eta euskaldunari begiratu behar diete euskarazko hedabideek, bai eta euren buruari ere, euskarazko *gainerako* hedabideei ere. Beregintasan osoan funtzionatu behar dute hedabideek esparru horretan; zentratu egin behar du sektoreak bere ingurune naturalean. Sektorearentzako indarra eta blindajeak hortik etorriko dira gehien bat. Kompetentziak kompetentzia, kala berean egin behar dute hedabide denek arrantza.

Berdinen edo berdintsuen arteko elkar-lana da ardatza.

Euskal hedabideen arteko indar zentripetu beregain bat sor lezake kala berean aritzeak. Eta, indar hori areagotzeko, euskarazko hedabideen artean sustatu beharko litzateke euskarri askotarikotasunean aritzeko izpiritua, horrek laguntzen baitu eduki berarekin, era-askotariko transformazioei esker, batetik kontsumitzaile gehiagorengana heltzea eta, bestetik, enpresa desberdinen artean joan-etorriko produktuen jario adostu bat egituratzea.

Ez da berez ona euskarazko hedabideak erdarazko hedabide-talde indartsuen menpeko izatea, haien beste ekoizpen bat gehiago izatea.

Gauzak horrela, itzulpen eta egokitzapen hutsa baizik ez da izango euskara, euskarazko komunikazioa erdarazkoaren bertsioa baizik ez delarik izango.

Baina, bere eduki propioen jabe den enpresak baizik ezin du egin hori. Are, modu arrakastatsuan nahi bada. Erdaraz bizi eta kudeatzen den enpresaren baitan eta haren menpe bada euskara, erdarak egingo du beti atoi-lana, hona zein hara. Gauzak horrela, itzulpen eta egokitzapen hutsa baizik ez da izango euskara, euskarazko komunikazioa erdarazkoaren bertsioa baizik ez delarik izango.

2.2.3 Beregintasun profesionala, bermea

Era berean, lan-mahaian landu beharreko kontua da beregintasuna.

Ziklistaren antzera, besteak beste, batzuetan tropelean joaten eta, beste batzuetan, ihesaldiak egiten ikasi behar du komunikazioaren profesionalak.

Tropelean joateak, gainerako hedabideek ireki dituzten bideetan barrena jotzeak lagun dezake batzuen eta besteen materiala trukatzeko, albiste lokal moduan jaiotzen dena nazional bihurtzen, giza esparrura eramaten berez dena kirolerako... Batera joateak horixe du: babesa eta ikuspuntu trukaketa. Sinergia elkar-lanean.

Era berean, eskapadak ere behar izaten ditu ziklista onak, besteei aurrea hartzeko, bere trebezia erakusteko, indar-erakustaldia burutzeko, helmuga eskuragarriago jartzeko. Primizia horiek gabe, gutxi litzateke kazetaritza-lana, adibidez.

Horrekin guztiarekin esan nahi baita ezen ildo propioa bilatu behar duela euskarazko hedabideen sektoreak, ibili gabe beti erdal medioek zer esan eta zer egin.

Tropel propioa behar dute euskararen txirrindulariek.

Kontraesanezkoak dira mimetismo hutsak: hedabidearentzat eta euskararentzat.

3. KITA EZAZU KALABAZA, SEKTOREAREN HAIZE AHULA GAINDITU BEHARRAZ

Euskarazko hedabideak behar ditugu, euskarazkoak nahi ditugulako. Erdarazkoak hor daude, hamaika hizkuntzatan. Beude. Horien aurka ezer ez dugu. Mesedegarri zaizkigu gainera, ez baikara elebakar, ez gure bizitza partikularrean ezta gure harreman publikoetan ere.

Baina euskarazkoak nahi ditugu. Eta, *nahia* esaten denean, argi utzi behar da borondatezkoa dela hautua.

Alegia, batzuetan, ematen du euskararen aldeko eskakizunak eskubide-mailakoak direla, hutsean eskubide-mailakoak. Hots, eskubidea dugula euskararekin, kasu honetan euskarazko hedabideekin, hedabideak euskaraz edukitzeko. Baina, harago doa kontua.

Izan, izango dugu horretarako eskubidea. Nola ez ba! Baina eskubide hutsa ez da nahikoa, zeren eskubidea ez baita kontsumitzen, eta hedabideak kontsumitu egin behar dira, bizirik iraun behar badute.

Eskubidearekin ez da hori gertatzen. Garrantzitsua eta oinarrizkoa izanik ere eskubidea, zerbait pasiboa da, izatezko zerbait. Eskubidea aktibatu egin behar da, gauzatu. Eta orduan mamitzen da entelekia. Euskararekin berdin. Euskarazko hedabideekin berdin.

Ez da nahikoa esatea “euskaraz jarduteko eskubidea dut”. Jardun egin behar da euskaraz, euskara bizi dadin, euskalduna euskaraz gara dadin. Ildo beretik, ez da nahikoa esatea “euskarazko hedabideak zor zaizkigu”. Zor izango zaizkigu, baina kontsumitu ezik, eskuarte hartu ezik, alferrekoak dira erreibindikazioak oro.

Eta, euskarazko hedabideen kontsumoa krisi betean dago, haize ahul batek gobernatzen ditu euskararen bela-oihalak.

Kalabazak hartu artasorora.

Askok nahi genukeena baino gutxiago kontsumitzen dira euskarazko hedabideak. Datuak hor daude, inkesta ugari egin da. Berdin gertatzen da euskararen beraren erabilerarekin, ezagutzaren mailatik behera baitago euskarazko jarduna gure kaleetan eta eskola-patioetan. Zuhaitz bereko porrotak dira euskararen erabilpenik eza eta hedabideen kontsumorik eza. Axolagabekeria eta ardurarik eza, besterik ez da bi horien oinarrian.

Baina, porrotak hor dirau, euskaldunak halaxe gura duelako. Ez da euskara entzuten kalean, egiten ez delako. Gurasoek seme-alabei euskaraz bai baina euren artean erdaraz egiten dutelako. Politikariek nahiago dutelako prentsaurrekoetan erdaraz jardun euskaraz baino. Apaizak erdara darabilelako pulpitan.

Euskaldunaren hautua da euskaraz ez egitea. Jakina, erdaldunak ere ez du egiten, baina ezinbestean. Erdaldunak berak jakingo du zergatik ez dakien. Baina, ezin du euskaraz jardun. Aldiz, euskaldunak bai, ahal du. Borondatezko hautua du egitea edo ez egitea.

Hedabideen kasuan berdin.

Hor daude hedabideak. Euskarazko hedabide horiek ez dira behar-ko genituzkeenak, agian. Ez dira izango beti eskuragarri kioskoan. Ez dirake nahi genituzkeen modukoak, beharbada. Ez zaizkigu gustatuko jabeak, honekin edo harekin lerrokaturik ikusten ditugulako... Baina, daudenak daude. Abiatzeko puntu bat bada.

Oinarrizko kontsumorik gabe, ez dago goragoko mailako hedabide osotuagorik ez sortzerik ezta amesterik ere.

Azterketa sakona behar dugu, euskarazko hedabide horien erabilera-ren eta erabiltzaileen ezaugarriak eta interesak identifikatzeko eta modu sakonean ezagutzeko. Hizkuntzaren erabilpena eta hedabideen kontsumoa norabide bereko ardatz positiboan jartzeko, beharrezkoa da analisi-lan hori.

3.1. Euskarazko sare komunikatiboan aurrera egiteko bidea

Batzuen ustez, erdaldunak izango du gure eri guztien kulpa. Edo Administrazioek izango dute kulpa hori. Edo gizarteak. Edo eguraldiak...

Garrantzitsua eta oinarrizkoa izanik ere eskubidea, zerbait pasiboa da, izatezko zerbait. Eskubidea aktibatu egin behar da, gauzatu. Eta orduan mamitzen da entelekia. Euskararekin berdin. Euskarazko hedabideekin berdin.

*Azterketa sakona behar
dugu, euskarazko
hedabide horien
erabileraren eta
erabiltzaileen ezaugarriak
eta interesak
identifikatzeko eta modu
sakonean ezagutzeko.
Hizkuntzaren erabilpena
eta hedabideen
kontsumoa norabide
bereko ardatz positiboan
jartzeko, beharrezkoa da
analisi-lan hori.*

Bestek, azken finean.

Baina, euskaraz jarduteko orduan atzera egiten baldin badugu euskaldunok, guk geuk, euskarazko medioak kontsumitzeko unean atzera egiten baldin badugu euskaldunok, kontuak ez du aterabiderik.

Ez hiztun-komunitate gisa, ezta hedabideen kontsumitzaile gisa ere.

Bestek ezin dute, guk geuk baizik.

Kalabaza baztertzeotan, artoa hartu beharko da aintzakotzat.

Ez gaitezen engaina: bidegabe horretan, erdara ez da barrik kapaz, euskarak laguntzen dio...

4. NOLA INDARTU SEKTOREA?

Ez da erraz asmatzen aterabide erabakigarria krisi garaietan. Baina zerbait berri, interesgarri eta iraunkor finkatzen joateko, besteak beste, honako irizpide hauek har daitezke gogoan eztabaida bideratzeko.

1. Egun, euskarazko hedabideen sarea izan daitekeena, zirkuitu laburrez eta kontraesan bezala dago: etenak eta zentzugabekeriak han eta hemen susmatzen baitira. Adibidez: informazio bera emateko, kasu batzuetan bi eta hiru hedabide daude, bakoitza esku batzuetan. Hemen eta han kontsumi liteke albiste bera, batere balio erantsirik gabe, ez batean ezta bestean ere. Aldiz, hainbat alor komunikatibo hutsik da gaur egun. Inork ez dihardu euskaraz eremu horietan. Irudi batekin esateko, bete eta lodi dago euskararen argindarraren kablea, esparru batzuetan. Aldiz, beste batzuetan, inor ez da hasi ezta kablea hedatzen ere.

2. Zezena adarretatik oratzea da onena. Arestiko egoera kalifika-ezin hori gaintitzen lagundu beharra dago, nork bere indarrekin. Administrazioak bere egin behar du erronka hori, eta aitzindari papera jokatu amaraun horren ehuntze-lanetan, zirkuitulaburrak desaktibatzen. Euskarazko hedabideen mapa diseinatu beharra dago horretarako. Gaur hobe, bihar baino. Euskarazko gizarte-komunikazioaren eragile guztien adostasunetik.

3. Hedabideen eta euren produktuen indar zentripetua ekoizten eta kudeatzen lagunduko duen eztabaida- eta diseinu-erreminta bizi bat sortu eta eskuragarri eduki behar dute hedabide euskaldunek aurrera egiteko, sendotzen joateko, euskal hiztun-komunitateari gero eta zerbitzu interesgarriago eta hobeago eskaintzeko.

4. Beste urrats batean, erreferentziazkoak izan daitezkeen euskarazko edukiak sortu ondoren, erdaldunari agertu behar zaio *euskararen ekoizpena*. Euskaldunarentzat erakargarria den eduki informatibo nahiz kultural arrakastatsua, erdaldunari eskaini behar zaio gero, hark ere aintzakotzat eta kompetentetzat har dezan euskarazko zirkuitua eta beronen ekoizpena. Itzulpen-agentzia edo euskararen produkzioa beste hizkuntzetan jariatuko lukeen denda-zerbitzu moduko bat litzateke hori, euskararen indar zentrifugoa areagotuko zukeena.

5. Hori guztia garatzeko, elkarlana eta kalitatezko ekoizpena eskatu

behar da. Militantzia babestutako kontsumoaren garaiak gero eta atzerago geratzen ari direla eta, argi dago kalitatezko edukietan nahiz hizkuntza-erregistro egokietan eta horien lanketan datzala erronka nagusia.

6. Gure tamaina propioak bultzatuta, ebidentzia gardena da gure unibertsoa mugatua dela, kontsumitzaileen partetik nahiz sortzaileen partetik. Hori muga kuantitatiboa da printzipioz; espero dezagun kualitatiboa ez izatea. Jabetu gaitezkan horretaz, enpresa eta produktu berriak diseinatzean.

7. Idazle izan, kamerari izan, kudeatzaile izan... euskarazko hedabideetan lan egiten dutenek jantzi behar dute beren profesioan. Esan nahi da, mesedegarria suertatuko zaiola euskarazko hedabideen sektoreari bere langileak eta kolaboratzaileak beren profesioetan ikasiak eta trebatuak izatea, ezagutzea ofizioari dagozkion baliabideak eta horiek praktikara eramatea. Eta, jakina, ezin halakorik lortu baldin eta jornal duinik jartzen ez bada mahai gainean.

8. Teknologia berrietan inbertitu behar dute euskarazko hedabideek. Indartsuago izateko, ekoizpen-aukerak askotarikoak izateko, jende gehiagorengana heltzeko, errentagarritasun enpresariala eta profesionala ugartzeko. Euskal enpresa komunikatiboen arteko jarioak ugaltu eta sendotzeko.

9. Hizkuntza duintzeko, duintzat hartu behar dute gizartearen abangoardiek eta gizarte-eragileek hizkuntza. Eta, hedabideen aurrean dihardutenean, euskara duin eta jasoa erabili behar dute.

10. Gaur gaurkoz, euskara bigarren mailakotzat duen gizarte batean bizi gara. Hedabideen esparruan, telebistan edo irratan, zentzurik ez du euskalduna bakarrik euskaraz jartzea euskaldunarentzat eta, aldiz, erdaldunentzat erdaraz. Erdaldunak ere entzun beharko du euskara, bestela, nola pentsatzen dugu piztea harengan euskararenganako apetitua eta interesa?

5. HALOWEIN ETA ARTAZURIKETA

Hedabideak edo komunikabideak dira, oro har, gizakiaren pronuntziamendu publikoen topalekua, aparteko gune soziala. Prentsa, irrata, telebista, Internet-sarea... gizakiaren komunikazio-beharrak asetzeko teknologia ohikoak dira. Batzuk zaharrago eta besteak modernoago, baina gure eguneroko bizitzan daude sartuta horiek guztiak.

Gizaki modernoak ez daki, jada, horiek gabe bizitzen. Urliari egunkaria falta bazaio, Sendiari irratiko emanaldi bat, Berendiari telefonoa MSSak bidaltzeko... inor ez da gustura sentituko.

Hedabide eta komunikabide horiek guztiak, ohikoak eta berriak, gizarte-bizitzaren adierazle dira. Bertan biltzen dira gizartearen asmakuntzarik eta borobilenak nahiz giza emaitzarik kaxkarrenak.

Era guztietako erritual modernoan oinarri bihurtu dira hedabideak: gosariarekin irrata entzutea, lanerako trenean MP3a entzutea, hamaike-takoan telebistari begira egotea, esku-pilotaren finala etxeko salatik jarraitzea edo Karibeko Piratak ikusteko zinema-aretoa joatea...

Hori guztia garatzeko, elkarlana eta kalitatezko ekoizpena eskatu behar da. Militantzia babestutako kontsumoaren garaiak gero eta atzerago geratzen ari direla eta, argi dago kalitatezko edukietan nahiz hizkuntza-erregistro egokietan eta horien lanketan datzala erronka nagusia.

Bide horretan, informazio orokorra eta espezialdua uztartzen ikasi behar du euskarak. Era berean, bere jendea, bere komunitatea entretenitzen ikasi behar du euskarak. Duintasunez, jakina.

Hori guztia ohiko egin da gure artean. Informaturik egoteko, formaturik egoteko, aisia eta dibertimendua egituratzeko... hedabideak behar ditu gizaki modernoak. Ohiko eta errituzko egin da haiekiko harremana. Eta, esentziala da erritu hori gizarte modernoan ezaugarritzean.

Euskarak ezin du hortik at biziraun.

Garrantzitsuak dira hedabideak. Dударik ez da. Gehiago ala gutxiago baloratu, hor daude, eta kontsumitu egiten ditugu: batzuk diru-truke eta beste batzuk oparitan. Gizarte modernoan, egun ezagutzen duguna, pentsaezina da hedabide eta komunikabide horien konkurrentziarik gabe.

6. INFORMAZIOA, FORMAZIOA ETA ENTRETENIMENDUA

Gizarte moderno eta aurreratuetan, gizakia eta gizartea informatzen eta formatzen laguntzeaz gain, hedabideak entretenimendu-lerro erakargarriak sustatu behar ditu bere kide eta erkidegoentzat.

Bide horretan, informazio orokorra eta espezialdua uztartzen ikasi behar du euskarak. Era berean, bere jendea, bere komunitatea entretenitzen ikasi behar du euskarak. Duintasunez, jakina.

Baina, ez da langintza arrunta euskararena. Euskarak bizi dituen gizarte-egoera eta baldintzak kontuan hartuta, hizkuntza-normalizazio plan integral baten baitan ikusi behar da euskarazko hedabideen garapena eta blindajea. Horretarako, mapa ideal bat marraztu behar da, zer dugun eta zer falta zaigun identifikatzeko. Eta, behar bada, horren kariatara, sektorearen balizko birmoldaketa-aukera bat aurreikusi beharko da.

Hedabide euskaldunen foro edo plataforma komun bati eskatu beharko litzaioke arestikoaren aurre-diseinua egitea.

Planifikazio arautu eta adostuaren bide horretan barna abiatzeko, sektorearen diagnosi ahalik eta objektiboena egin behar da aurrez. Erabaki behar da zer den euskararen interes publikoa, eta, horren arabera, zer den babes publikoak sustatu eta bermatu behar duena. Eta, zer den esku pribatuetan ontzen utzi behar dena.

Eta, beste kontu bat. Nerabeak eta gazteak dira etorkizuna. Askotan esan izan da hori.

Halere, atzeak erakusten dio aurreari nola dantzatu. Euskarazko hedabideentzako diseinu eta estrategiek orok ez zuketen ahaztu beharko ezen errekek, itsasoraino heltzeko, lehenago iturrietan edan behar izan duela tantoa. Ezin da praktikatu hedabideekin beste arloren batzuetan praktikatu izan den belaunaldi galduen politika.

Azken bi ideia.

Bat: euskarri-aniztasunean aritzeak emango dio etorkizunerako bermea euskarazko enpresa komunikatiboari.

Bi: sektorearen barneko elkar-lanik gabe, hodei beltzak izango ditugu ortzian.

Giro umelean, ez da onduko artorik.■